

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 2021-11-10

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Arratebide 7 zenbakiko auzokide batek eskatu du gorago jar dadila inguru horretako pasabidearen ostean sortu den jardina, lurra bota eta loreak landatu ahal izateko.	Eskatu duen pertsonarekin komentatu ondoren, adierazten digu lurra harrotzea nahi duela loreak landatzeko. Jardin publiko bat da; hortaz, ezin da lan hori egin.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du konpon dadila Arratebide 7 zenbaki ondoko parkean dagoen baranda.	Lan-agindua egin da baranda hori konpontzeko. Laster egingo da lana.
Udaltzaingoa	Legarre 9 zenbakiko auzokide batek eskatu du ken dadila goialdean dagoen autobus-geralekua, ez omen duelako inork erabiltzen.	Zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunari eman zaio abisua, erabileraren inguruko informazio eman dezan.
Zerbitzuak	Auzokide batek kexa adierazi du zaborraren kamioia Legarre 9 zenbaki inguruan dagoen espalaira igotzen delako, eta espaloia hondoratzen ari delako. Beldur da espaloi azpian dagoen asfaltozko geruza hautsiko ote den.	Mankomunitateak kexa igorriko dio kontratatuta daukan enpresari, Mankomunitateak karga txikiko kamioi batekin jasotzen baitu zaborra.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du ken dadila Legarre 9 inguruan dagoen okindegi pareko zamalanetarako tokia. Dioenez, ez da erabiltzen.	Inguruan dauden dendek erabiltzen dute.
Obrak	Auzokide batek dio Legarregain 1 zenbakian urte batzuetara arte zegoen karkaba kendu zenetik hezetasunak dituela etxean.	Azterlan bat egingo da hezetasunen jatorria zein den jakiteko.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 2021-11-10

Saila	Laburpena	
Obrak	Ardantzako auzokide batek kexa adierazi du zulo sakonak daudelako San Juan kale osteko espaloian. Dioenez, jendeak estropezu egiten du, eta, batez ere, gurpil-aulkian edo umeen aulkian edo erosketa-orgarekin doazenek arazoak dituzte.	Eremu horretan lanak egitea aurreikusten da, igogailuen lanak amaitu bezain laster.
Zerbitzuak	Miraflores kaleko bizilagunek salatu dute kalea egoera txarrean dagoela. Eskatu dute kutxatilak garbitzeko, zeren eta, diotenez, lur eta hostoz beteta daude, eta, gainera, sasitza dago.	2022ko otsailean, Mankomunitateak berari dagozkion kutxatilak garbitu zituen. Halaber, 2022ko martxoan, sasiak eta arbolak garbitu ziren.
Udaltzaingoa	Mirafloreseko auzokide batek eskatu du berriz egiteko Udaltzaingoa zaintza-errondak auzotik.	Egunero egiten ari dira kontrolak inguru horretan.
Zerbitzuak	Eskatu dute Miraflores auzoa txukuntzeko; batez ere, orain, pandemiarekin jende gehiago pasatzen delako bertatik.	Bisita bat egin da auzotarrekin, bertatik bertara ikusteko zein diren beren erreklamazioak. Zuzenean erantzungo zaio auzoko talde horri.
Obrak	Auzokide batek proposatu du espazioak gaitu daitezela Mirafloresera igotzeko errepidearen alboetan, ibilgailuak han sartu ahal izateko eta errazteko kontrako noranzkoan dabilzan ibilgailuen pasabidea. Dioenez, errepidea, orain konfiguraturuta dagoen bezala, estuegia da ibilgailuak igotzeko eta jaisteko.	Gai hau aztertzen ari gara.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 2021-11-10

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Herritar batek salatu du pinuak bota ondoren kamioek lurreen eta errepedeko asfaltoan eragiten dituzten kalteak.	Udal-ondasunetan edozein motatako txikizioa hautematen denean, bidezkoa den txostena egiten da, eragileari eragindako kalteak erreklamatzeko. Kalteak konpontzeko agindu zaie, eta hori egin arte ez zaie fidantza itzuliko.
Hirigintza	Legarre-behea 2 zenbakiko auzokide batek galdetu du ea komunitateak alda ditzakeen fatxadaren zorrotan, igogailu bat eraikitzeko egin behar diren obrak aprobetxatuz.	Bai, sar ditzake proiektuaren parte bezala, betiere Araudia betez.
Obrak	Auzokide batek galdetu du ea noiz egingo diren Mekolako igogailuak.	Lan hauek lizitaziora atera dira eta 2023 urtean zehar egingo dira.
Zerbitzuak	Kexa adierazi du Ardantzako igogailuak sarritan izaten zituela matxurak eta zikin dagoela beti.	Igogailuaren arazoa ekintza bandalikoengatik izaten da, atea indarrez eta ostikoz jo eta igogailua erabilezin lagatzen baitute. Garbiketa urteko 365 egunetan egiten da.
Hirigintza	Auzokide batek informazioa eskatu du Mirabasoko proiektuari buruz.	Miraflores inguruko baso-lorategia egokitzeko lanak egiten ari gara, eta 2022. urtearen amaieran amaituko dira.
Zerbitzuak	Kexa adierazi du Mirafloreserako bide ofizialeko argiteria arboleak estaltzen dutela. Eskatu du inauste-lan sakona egitea.	2022ko apirilean, zuhaitz haiek otsailean inausi ziren.
Alkatetza	Auzokide batek eskatu du bilera bat egitea Mirafloreseko auzotarrekin, auzoari eragiten dizkioten kontua guztiak aztertu ahal izateko.	Bilera hori 2022ko martxoaren 2an egin zen.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 2021-11-10

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Legarregaineko auzokide batek kexa adierazi du inguru horretako arrapala hezetasuna dela-eta goroldioz eta belarrez beteta dagoelako.	Belarra urtean 5 edo 6 aldiz kentzen da eta ugertzeko makina pasatzen da urtean behin.
Zerbitzuak	Eskatu du garbitzea Legarregain 2 zenbakiaren inguruan dauden garajeetako eskailera-alboak.	Mankomunitateak auzo-bileraren hurrengo egunetan egin zuen garbiketa.
Zerbitzuak	Salatu du labezomorroak daudela Legarregain 2 zenbakiko pegora inguruan.	Abisua eman zaio desratizazioaren arduradunari.
Udaltzaingoa	Ardantza 11 zenbakiko bizilagun batek kexa azaldu du arkupeetan gazte asko biltzen direlako eta musika oso altu jartzen dutelako. Udaltzaingoa gehiago kontrolatzea eskatu du.	Kontuan hartuko da kontrol handiagoa egiteko. Molestiak eragiten ari diren unean abisua eman behar zaio Udaltzaingoari, egoera egiaztatu dezaten.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du gehiago zaintzeko eta ongarritzeko Ardantza 1 eta 3 zenbakien parean dauden jardinerak.	Ardantzako lorategi-gune guztietan egin dira mantentze-lanak. Gainera, udazken-neguan hainbat sastraka landatuko dira jardineretan, sasoi egokiena baita horretarako.
Udaltzaingoa	Ardantzako auzokide batek eskatu du Udaltzaingoa zorrotzagoa izateko grafitigileak zigortzeko orduan.	Grafiti baten egilea identifikatzen denean, bidezkoa den zehapen-espedita irekitzen da.
Udaltzaingoa	Kexa adierazi du Toribio Etxeberria kalean ibilgailuak oso gertutik igarotzen direlako eta, terraza asko daudenez, ezin direlako bankuak erabili.	Terrazen baimenak Hirigintza Sailak ematen ditu. Dena den, mahaiak ez dira jartzen bankuen parean.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 2021-11-10

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Auzokide batek proposatu du panel bat jartzea uneoro airearen kalitatea eta hezetasuna erakutsiko dituen.	Badira ekipo batzuk laginak jasotzen dituztenak; emaitzak udal-webgunean argitaratzen dira.
Alkatetza	Galdetu du ea zergatik joaten diren Eibartik azalera handiak.	Enpresa pribatuak dira eta, kasu askotan, arrazoi ekonomikoengatik, beren zentroak ixtea aukeratzen dute edo beste leku batzuetara joatea.
Obrak	Mekolako auzokide batek galdetu du ea kontsultatu daitezkeen Mekolako igogailuen proiektua, eta baita ere ea bileran erabaki zen baldintzetan jaso den.	Proiektua idatzita dago eta bertan jasotzen dira hartutako akordioak.
Obrak	Auzokide batek galdetu du ea nola eragingo dioten etxebizitzaren obrek eta Mekolako igogailuek oinezkoen pasabideari eta ibilgailuen zirkulazioari.	Lanak egiten diren bitartean, Ardantzatik Arrate-Biderako bidea itxita egongo da Mekolatik.
Obrak	Kexa adierazi du ez dagoelako zebra-biderik Itzioko parkera sartzeko.	Errepide hau Gipuzkoako Fori Aldundiarena da.
Zerbitzuak	Eskatu du Itzioko parkeko arbolak inaustea.	Arbolen inausketa 2021eko abenduaren 3tik 9ra egin zen.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 2021-11-10

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzokide batek proposatu du gehiago zaintzeko jardinaren espazioa Tarte kafetegiaren terrazara aurrean. Dioenez, zikina dago eta txakurrek han egiten dute txiza eta kaka. Proposatu du hesi bat jartzeko, edo, bestela, jardina kentzeko.	2022ko apirilean mantentze-lanak egin ziren berdegune horretan.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du Mankomunitateko presiozko uraren furgoneta sarriago pasatzeko Tarte kafetegiko terrazetatik eta jolasgunetik.	Tabernako terraza jabetzak garbitu behar du. Kontuan hartuko da ugertzeko makina pasatzeko.
Zerbitzuak	Auzokide batek proposatu du Ibilixan ibilbide bat sortzea Miraflores, Arrajola eta Sosola artean. Eskatu du bidea zaintzeko eta garbitzeko eta bide bat sortzeko esfortzu fisiko gutxiago eskatuko duena.	Ingurumeneko saila eremu naturalean ibilbideak sortzeko azterketa egiten ari da.
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Auzokide batek salatu du ibilgailuak abiada bizian pasatzen direla Itzio eta Miraflores sarrera artean. Eskatu dute bazterbide bat eraikitzeko oinezkoak babesteko eta baita banku batzuk jartzeko ere.	Itzioko bidegurutzetik Milafloreseko hasieraraino espaloi bat dago, eta estua izan arren, ahalbidetu egiten du oinezkoak handik igarotzea. Aintzat hartu behar da GI3950 errepideko tarte bat dela, eta haren titularra Gipuzkoako Foru Aldundia dela.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 2021-11-10

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Herritar batek eskatu du berreskuratzea Pitxargaineko bide zaharra, hala Arratebide eta Eibarko erdialdeko lotura berreskuratu ahal izateko.	Bide zaharra moztuta geratu zen Itzioko ikastetxea eraiki zenean, eta ezin da hura berreskuratu. Konexioak trazadura alternatibo bat eskatuko luke, eta zailtasun handiak planteatzen ditu, bai eraikuntza bai jabetza aldetik.
Zerbitzuak	Kexa adierazi du Arratebide kaleko 20 A eta 20 B zenbakien artean dauden eskailerak zartatuta eta goroldioarekin daudelako, bereziki, bigarren eskailera-zatitik aurrera.	Eskaileretan eta inguruetan (espazio publikoa) dauden sasiak kendu dira. Gainera, aurki eskailera horiek txukundu egingo dira (partxea, etab.).
Hirigintza	Iradoki du lursail gehiago eros daitezkeela arbolak eta landare autoktonoak landatzeko, eta, hala, eukaliptoak landatzea eragozteko.	Eibarko Udalak landa-lurak erosteko lanean dihardu.
Hirigintza	Salatu du 2021ean tiro-pitxoi edo uso-tiroketa lehiaketa egin dela Arraten.	Tiroketa zelaiak egin ditzake bere jarduera-lizentzian jasota dauden jarduerak.
Hirigintza	Eskatu dute plater-tiroketan geratzen diren kartutxo-hondarrak jasotzeko.	Tiroketa zelairako tramitatutako jarduera-lizentziak exijitu egiten du kartutxo-hondarrak erretiratzea.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 2021-11-10

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Eskatu dut begiratoki bat eta banku batzuk jartzeko Arrateko gurutzean.	Orain arte, bankuak gehien behar diren tokietan jarri dira. Dena den, ingurumenari eta itxurari dagokionez hobetoen datorren erabakia hartuko da.
Obrak	Eskatu dute begiratoki bat jartzeko 5 Km-aren eta Arrateren arteko zatian.	Ingurumeneko saila eremu naturalean ibilbideak sortzeko azterketa egiten ari da.
Zerbitzuak	Eskatu dute pagoak hobeto zaintzeko.	Errepide hori Gipuzkoako Foru Aldundiarena da. Dena den, teknikoki ez da bideragarria ikusten.
Alkatetza	Eskatu dute Torrekuan autobus-geltoki intermodala egitea.	Arbolak normalean ez dira mantentzen eta are gutxiago landa-eremuan daudenean. Arazoren bat dagoenean bakarrik esku hartzen da. Ikuskaritza bat egingo da egoera ikusteko, eta esku-hartze puntualen bat egingo da beharrezkoa izanez gero. Egindako txosten eta azterlanen arabera, herritarrentzako kokapen egokiena Egogain da. Horren harira, proiektu bat lantzen ari dira gaur egun dagoen tokian autobus-geltokia hobetu eta modernizatzeko.



# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre 2021-11-10

Saila

Laburpena